

2016/17

---

# HASTAPEN ETA JOSTETA JARDUERAK

---



**ESKOLA  
KIROLA**  
Programa de  
**Deporte  
Escolar**

MODALITATEA	JARDUERA	MOTA	IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK EGITEA	PLAZEN ADJUDIKAZIO	IZENA EMATEKO EPEA	PREZIOA	i
URPEKO JARDUERAK	Urpekaritza	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	URPEKO JARDUERAK →
XAKE		Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	48 € ikastetxeko	XAKE →
TXIRRINDULARITZA		Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	TXIRRINDULARITZA →
AIRE KIROLAK	Aeromodelismoa/Kometak	Jolasekoa	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	9 € pertsonako	AIRE KIROLAK →
NEGUKO KIROLAK	Eski Alpinoa (Salidas de día)	Jolasekoa	BAI	ZOKKETA	2016ko urriaren 13ko 15:00etatik azaroaren 11ra	64 € pertsonako 57 € materiala edukiz gero	NEGUKO KIROLAK →
	Eski Alpinoa (Asteburu irteerak)	Jolasekoa	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 28ko 15:00etatik urriaren 28ra	149 € pertsonako 135 € materiala edukiz gero	
	Izotz gaineko patinajea	Jolasekoa	BAI	ZOKKETA	2016ko abenduaren 1eko 15:00etatik abenduaren 28ra	15 € pertsonako	
ESGRIMA		Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko abenduaren 19ko 15:00etatik aurrera	30 € ikastetxeko	ESGRIMA →
GOLFA		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik 25era	18 € pertsonako	GOLFA →
HIPIKA		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik 25era	60 € pertsonako	HIPIKA →
HOCKEYA		Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	HOCKEYA →
BURRUKA		Hasiera	BAI	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	10 € pertsonako	BURRUKA →
MENDIA	Mendi-irteerak	Jolasekoa	EZ	MUGARIK EZ	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	2,50 € pertsonako (3 € nagusientzako irteeretarako)	MENDIA →
	Orientazio-tailerra	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	6 € pertsonako	
	Kirol-eskaladako tailerra	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	10 € (egun 1) / 20 € (egun 2)	
	Egonaldia (Gorbeia/Izarraitz)	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	30 € pertsonako	
	Egonaldia (Tena harana)	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	140 € pertsonako	
	Egonaldia (Guarako mendilerroa)	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	100 € pertsonako	
	Egonaldia (Pirinioak)	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	140 € pertsonako	
	Egonaldia Europako Mendiak /Palentziako mendiak	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	120 € pertsonako	
PADEL		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik urriaren 14ra	2 € pertsonako	PADEL →
IRRISTAKETA	Irristaketa	Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	20 € pertsonako	IRRISTAKETA →
	Skateboarda	Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	20 € pertsonako	
	Free Skate / Freestyle Slaloma	Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	20 € pertsonako	
	Roller Estreeta	Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	20 € pertsonako	
	Irteerak	Jolasekoa	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	3 € pertsonako	
ESKU PILOTA		Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	ESKU PILOTA →
ARRANTZA		Hasiera	BAI	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	ARRANTZA →
PIRAGUISMOA		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko otsailaren 6ko 15:00etatik otsailaren 28ra	45 € (10 orduko ikastaroa) 25 € (4 orduko ikastaroa)	PIRAGUISMOA →
ARRAUNKETA	Kirola Finkatuz	Hasiera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	DOAN	ARRAUNKETA →
ERRUGBIA		2. jarduera	EZ	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 15eko 15:00etatik 2017ko apirilaren 28ra	DOAN	ERRUGBIA →
SURFA		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2017ko urtarrilaren 9ko 15:00etatik urtarrilaren 31ra	30 € pertsonako	SURFA →
MAHAI-TENISA		Hasiera	BAI	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	2 € pertsonako	MAHAI-TENISA →
ARKU-TIROA		Hasiera	BAI	IZENA EMATEN DEN HURRENKERAN	2016ko irailaren 19ko 15:00etatik aurrera	6 € pertsonako	ARKU-TIROA →
BELA		Hasiera	BAI	ZOKKETA	2016ko irailaren 12ko 15:00etatik irailaren 25era	40 € pertsonako	BELA →



# IZENA EMATEKO ARAU OROKORRAK

## IZENA EMATEA

### ERAKUNDEAK EMATEA IZENA

Erakundeak <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola> web orriaren bidez eman behar du izena, edo Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko zerbitzu eskuduneari (Recalde zumarkaleko 30-1. solairua), astelehenetik ostiralera, 8,30etik 13,30era; horrez gainera, inskripzio-orria bete behar du (VI-EK 6 eranskina).

Izena eman nahi duenak baliabide informatikorik ez badu eta behar baditu, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) erabilgarri dauden ordenagailuak erabili ahal izango ditu horretarako.

Izen-ematea balidatu ahal izateko, nahitaezko eremu guztiak (helbide elektronikoak, telefonoak...) bete behar dira, eta eskatutako agiri guztiak erantsi behar dira.

Erakundeak izena eman ondoren, hastapeneko eta aisialdiko jardueretan egin nahi dituen izen-emateak egin ahal izango ditu, <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola> webaren bidez, horretarako ezarrita dauden epeen arabera (ikus laborpen-koadroa).

### IZEN-EMATEA AMAK EDO AITAK EGITEA.

Honako jarduera hauetan, izen-ematea kirolarien aitak, amak edo tutoreak egin dezake: neguko kirolak (eguneko eta asteburuko irteerak, eski alpetarrean eta izotz gaineko irristaketan), golfa, hipika, borroka eta sanbo, padela, irristaketa (irristaketa, skateboarda, Free Skate/Freestyle Slalom, Roller Street, josteta-irteerak), arrantza, kanoa, skateboarda, surfa, mahai-tenisa, arku-tiroa eta bela. Horretarako, <http://www.bizkaia.eus/eskolakirola> webera jo behar du.

Izen-ematea ama edo aita batek egiten badu, gehienez ere hiru (3) parte-hartzailearen izena eman daiteke eta haietako bat, gainera, izen-ematea egiten duenaren seme-alaba izan behar da.



# MENDIA

## JARDUERAK

Mendiko Eskola Kirola programak hiru jarduera eskaintzen ditu: jolas-jarduerak, trebakuntzako jarduerak eta lehiaketa-jarduerak.

### Jolas-jardueren helburua

mendiari lotutako jarduerak sustatzea da. Horretarako, kategoria bakoitzari egokitutako hainbat jarduera diseinatu ditugu eta haietan lagundu, aurkitu, ezagutu, egin eta gozatu egiten dugu.

### Trebakuntzako jardueren

helburua proposatzen ditugun jardueren bidez partaideak trebatu eta haiei hasierako ezagupenak eskaintzea da. Eskaintzak kategorien arabera egokituta egongo dira, eta haien bidez proposamen ezberdinen sekretuak aurkitu eta ezagutuko ditugu.

### Lehiaketa-jardueren

helburua berriz, kirola egiten jarraitzea da eta haien bidez partaideen jarraipen zehatzago egin nahi da, trebakuntza eta garapen iraunkorreko eredu baten barruan, garapen, teknika eta esperientzia hobetu eta konpartitzeko diren hainbat topaketa eta lehiaketaren bidez.

## Mendiko argazki-lehiaketa

2016-2017 jarduera-egutegiaren barruan mendiko zazpigarren argazki-lehiaketa egingo dugu.

### **OINARRIAK:**

**Kategoriak:** Kategoria bi egongo dira: umeak eta nagusiak.

**Gaia:** Gai nagusia eta bakarra mendia eta mendiarekin lotutako guztia (paisaia, erretratua, talde-argazkia, xehetasunak, ekintza...) izango da. Argazkiak Eskola Kirola programaren jardueretan egindakoak izan beharko dira, eta, beraz, programa horretatik kanpo egiten direnak baztertuko dira. Aurkezteko era: Gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango dira partaide bakoitzeko, bai paperezko formatuan

(tamainarik handiena: 13 x 18).

Argazkiak CD batean grabatu behar dira JPG formatuan, eta dena gutun-azal itxi baten sartuta aurkeztuko zaio azken irteeraren arduradunari, apirilean edo azken jaiaren irteeraren aurretik

**Gutun-azalaren barruan honako hauek jarriko dira:** parte-hartzailearen datuak (izen-deiturak, zein kategoriatakoa den, adina, ikastetxea, harremanetarako telefono zenbakia, posta elektronikoa), argazkien zerrenda (bakoitzari zenbaki eta izena bana jarrita) eta argazkiak non hartu diren.

**Sari-banaketa:** Finalisten Jaiaren barruan epaimahaiaren erabakia eta sarien banaketa egingo da.

**Sariak:** kategoria bakoitzeko lehen hiru egilerik onenak sarituko dira. Sariak: mendiko argazkien liburu sorta bat eta trekking motxila bat.

\* **OHARRA:** Parte hartzen duten gurasoek ez dute saria jasotzeko eskubiderik; dena dela, haien lanak ere erakutsiko dira azken jaiaren egunean, gainerako parte hartzaileen lanekin batera.



## Kategoriak

Mendiko eskola kirolako kategoriak 2016/2017 ikasturterako:

Umetxoak: 2007/2008

Kimuak: 2005/2006 **UMEAK**

Haurrak: 2003/2004

Kadetek: 2001/2002 **NAGUSIAK**

Gazteak: 1999/2000

\* OHARRA: 2003an jaiotako umeek "nagusien" kategoriara pasatzeko eskatu ahal diote Bizkaiko Mendizale Federazioaren eskola kirolaren kudeaketa zuzendaritzari, baldin eta "txikien" kategoriako aisialdiko jarduera-programa bateko irteera bat gutxienez ondo amaitu badute. Hala ere, goi kategoria horretako prestakuntza-jarduera guztietan parte hartzeko aukera badute ere, kategoria horretako adina duten umeek izango dute beti lehentasuna.

## JOSTETA JARDUERAK MENDIKO IRTEERAK

Mendi-irteerak gure lurraldeko zenbait menditara egingo diren egun 1eko txangoak dira. Jarduera hau kategoriatan eta parte-hartzeko eskualdetan dago banatuta:

### PARTE-HARTZEKO ESKUALDE EDO ALDEAK:

- **1 Eremua:** Bilbo eta Enkarterriak.
- **2 Eremua:** Meatzaldea eta itsasadarraren ezkeraldea.
- **3 Eremua** Uribe Kosta.
- **4 Eremua** Urrdaibai, Durangaldea eta Lea Artibai.
- **5 Eremua** Ibaizabal, Urduña eta Arratia.

### MATERIALA:

Parte-hartzaile bakoitzak honako material hau eraman behar du:

- Motxila bana, bakoitzak irteera daraman materiala garraiatzeko modukoa.
- Mendiko edo trekking motako botak (ez da gomendatzen kiroleko zapatilak eramatea, ez dute orkatila ondo eusten eta)
- Txanoa eta eguzkitako betaurrekoak.
- Eguzkitako krema eta ezpain-babesa.
- Bero mantentzeko arropak eta zira.
- Polainak (euria/elurra bada).
- Kantinplora ("errefreskoen" litro bateko plastikozko botila bat nahikoa da).
- Hamaiketakoak.

Autobuserako nahitaezko materiala:

- Aldatzeko arropa eta oinetakoak, bigarren poltsa batean.

# UMEENTZAKO

## IRTEEREN EGUTEGIA

Gutxi gorabehera 4 orduko eta 400 m eta 600 m arteko desnibel positiboa duen ibilbideko txangoa izango da. Hauxe da irteeren egutegia:



EGUNA	ALDEAK	IRTEERA
2016/10/02 2016/10/09	1, 3 eta 5 2 eta 4	Bitarratxu/Mendibil .....> Trapagaran
2016/10/23 2016/11/06 2016/11/13 2016/11/20	1 2 3-5 4	Urko (795 m.) .....> Ermua
2016/11/27 2016/12/04 2016/12/18 2017/01/15	1 2 3-5 4	Mello (629 m.) .....> Sopusuerta
2017/01/22 2017/01/29 2017/02/05 2017/02/12	1 2 3-5 4	Katillotxu (336 m.) .....> Bermeo
2017/02/19 2017/03/12 2017/03/19 2017/03/26	1 2 3-5 4	Kalamendi (315 m.) .....> Berriatua
2017/04/02 2017/04/09 2017/04/30 2017/05/07	1 2 3-5 4	Arralde (945 m.) .....> Ubidea

### **IZENA EMATEKO KUOTA:**

Umetxoak, kimuak eta haurrak kategorietarako kuota: 2,50€ parte-hartzaile (arduraduna barne) eta irteera bakoitzeko

### **IZENA EMATEKO EGUNA:**

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (19:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.

# NAGUSIENTZAKO

## IRTEEREN EGUTEGIA

Gutxi gorabehera 6 orduko eta 800m eta 1000m arteko desnibel positiboa duen ibilbideko txangoa izango da. Hauxe da irteeren egutegia:



EGUNA	ALDEAK	IRTEERA
2016/10/09	guztiak	Bitarratxu/Mendibil .....>Trapagaran
2016/11/06	guztiak	Urtemondo (791 m.) .....> Zornotza
2016/11/27	guztiak	Burgüeno (1044 m.) .....> Enkarterri
2016/12/18	guztiak	Untzueta-Arrugaeta zeharkaldia .....> Orozko
2017/01/29	guztiak	Pico la Cruz (801 m.) .....> Galdames
2017/03/19	guztiak	Tologorri (1073 m.) .....> Lendoño
2017/04/30	guztiak	Aketegi (1548 m.) .....> Araia

### **IZENA EMATEKO KUOTA:**

Haurrak, kadeteak eta gazteak (nagusiak) kategorientzako kuota: 3,00€ parte-hartzatzaile (arduraduna barne) eta irteera bakoitzeko

### **IZENA EMATEKO EGUNA:**

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (19:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.

## EGOKITUTAKO MENDIA:

Mendiko Eskola Kirolaren 2016/2017 proiektuak trebatu eta eskaintzeko gai garen guztia eman nahi du eta beste ezerk baino gehiago aberastuko gaituen jarduera bat, aurrerantzean "Egokitutako mendia" deituko dioguna.

Hurrengo ikasturtean hezkuntza premia berezia duten gazteekin mendi-irteerak egin nahi ditugu. Horretarako Eskola Kiroleko irakasle eta gidarien artean badugu kolektibo honekin lan

egiteko beharrezko prestakuntza duen jendea. Haiak dituzten ezagutzek bultzatu gaituzte Kirol Egokituaren Federazioarekin gai horren inguruko lana egitera.

Egunak zehazteko daude, baina beharritanez egokitutako ibilbidea bilatu beharko dugu

## Finalisten jaia

Halaber, finalisten jaia kategoria guztietako parte-hartzaileekin egingo den jaialdia da, eta honako jarduera hauek izango ditugu denon gozamenerako:

- Mendiko ibilbideak.
- rokodromoa, "slackline" a eta tirolina.
- tailerrak.
- sari-banaketa.
- musika, argazki-lehiaketaren emaitzak eta abar

Finalisten jaiaren eguna:

EGUNA	ALDEA	IRTEERA
2017-05-21	guztiak	FINALISTEN JAIA

### **IZENA EMATEKO EGUNA:**

Guztientzako kuota: 3€

### **IZENA EMATEKO EGUNA:**

Irteera bakoitzaren inskripzioa irteeraren aurreko igandetik asteazkenera bitartean egin beharko da. Inskripzioaren azken eguna: irteeraren aurreko asteazkena (19:00ak). Autobus geltoki eta ordutegiak, mendiari buruzko informazioa (krokisa, mapak), ibilbide-orria eta bideak irteeraren aurreko ostegunetan bidaliko dira.

\* OHAR GARRANTZITSUA: Ez da itzuliko jolas-jardueretan parte hartzeko ordaindu den dirua. Ekintza horiek zuzendaritzaren erabakiz bertan behera geratzen direnean baino ez da itzuliko dirua.

## TREBAKUNTZAKO JARDUERAK

**Treba kuntzako jardueren helburua: mendiko segurtasunaren arloko oinarrizko ezagupenen bidez kirolariak mendiarekin zerikusia duten gai, jarduera eta alderdi jakin batzuetan hasia eta prestatzea, betiere ingurumena ezagutuz eta errespetatuz. Jarduerok aurrera eramateko tailerrak eta egonaldiak antolatu ditugu.**

## TAILERRAK

Tailerretan, modu monografikoan landuko dira espezializaziorako gai edo jarduera zehatzak.

### **A/ ORIENTAZIOKO TAILERRA:**

Orientazioari buruzko tailerrak honako helburu hau du: orientazioari buruzko oinarrizko ezagutzak irakastea parte hartzaileei.

- **Norentzat da:** kategoria guztientzat
- **Edukiak:**
  - Ingurumena ezagutu eta errespetatzea
  - Irteera bat prestatu eta diseinatzea
  - Materiala prestatu eta aukeratzea
  - Orientazioko tailerra: Nabigazioa, kartografia, planoen irakurketa eta iparrorratzaren erabilera

- **Iraupena:** tailerrak goiz bateko iraupena du.
- **Tokia:** tailerra oraindik zehaztu gabe dagoen egokitutako lekuan izango da.
- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 20 parte-hartzaile taldean.
- **Kuota:** Parte-hartzaile bakoitzeko 6.00 € da ikastaroaren prezioa.





## **B/ KIROL-ESKALADAKO TAILERRA**

Honako hau da kirol-eskaladari buruzko tailerraren helburua: kirol-eskaladari buruzko oinarrizko ezagutzak irakastea parte hartzaileei.

- **Norentzat da:** kategoria guztientzat
- **Edukiak:**
  - Mugimenduen teknika
  - Segurtasuna
- **Oinarrizko materiala**
  - Korapiloak.
- **Materialak:** BMF-k utziko du ikastaroa egiteko behar den materiala.

- **Iraupena:** Goiz bateko (larunbata) edo bi goizeko tailerra izan daiteke.
- **Tokia:** Jarduera eskatzen duen ikastetxetik edo erakundearen lokaletik hurbil dagoen instalazio batean egingo da (rokodromoa, bulderra edo eskaladako eskola). Erakunde eskatzailearen ardura izango da jarduera egiteko lekura joatea.
- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 14 parte-hartzaile taldean.
- **Kuota:** ko prezioa 20 € eta egun bakarrekorako 10 €.

## **EGONALDIAK**

Egonaldiak prestakuntza-jarduerak dira: aukera eskaintzen die parte-hartzaileei mendian ibiltzen has daitezen, baina ingurumena errespetatuz eta segurtasunez. Horretarako, tailerrak eta hainbat jarduera egingo dira: mendi-ibiliak, eskalada, rappela, arroila-jaitsierak...; mendiko aterpetxe eta babeslekuetan egingo da lo

\* **OHAR GARRANTZITSUA:** Egonaldietara joan ahal izateko (txikien zein nagusien kategorietan), aurretik jolas-jardueretara eta haietan proposatutako irteeretara joan beharko da.

### **UMETXO, KIMU ETA HAUREN KATEGORIAK**

Bi eguneko irteera da; mendiko aterpetxe batean egingo dute lo. Parte-hartzaileek aukera izango dute mendian ibiltzen hasteko, baina segurtasunez eta ingurumena errespetatuz. Horretarako, tailerrak eta hainbat jarduera egingo dira.

Kategoria hauei dagozkien jarduerak Gorbeia Parke Naturalean eta Izarraitzeko Parke Naturalean egingo dira, maiatzean eta ekainean.

### **EGONALDIA GORBEIAN/IZARRAITZEN**

- **Norentzat:** lehentasuna dute umetxoek, kimuek eta haurrek.
- **Edukiak:**
  - Eskalada eta rappeleko tailerra
  - Orientazioko tailerra



## ...EGONALDIAK

- Mendiko igoera bat prestatu eta diseinatzea

- **Iraupena:** Irteera larunbateko 10:00etan hasiko da, Pagomakurren Gorbeia joateko eta Aittolan Izarraitza joateko. Itzulera, berriz, igandeko 17.00etan izango da, leku berean.
- **Tokia:** jarduera hau Gorbeia eta Izarraitzeko mendiguneetan egin daiteke. Horretarako Arrabako Angel Sopeña eta Erloko Xoxote aterpetxean egingo da lo.
- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 18 parte-hartzaile taldean: 16 ume eta 2 arduradun. Gutxieneko taldea 8 kidekoa izango da, arduradun birekin
- **Egunak:** maiatz eta ekaineko asteburuetan izango dira (finalisten jaiako asteburua izan ezik).
- **Kuota:** jardueraren prezioa 30 € da.

\* Oharra: larunbateko bazkaria ez dago sartuta; parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko du. Txikien egonaldietan ez dugu autobus-zerbitzurik izango.

### HAUR, KADETE ETA GAZTEEN KATEGORIAK

Hainbat egunetako irteera da; mendiko aterpetxe-babesleku batean edo batzuetan egingo da lo. Kadeteen eta gazteen kategorietako parte-hartzaileek aukera izango dute mendian ibiltzen hasteko, baina segurtasunez eta ingurumena errespetatuz. Horretarako, tailerrak eta hainbat jarduera egingo dira.

Jarduerak lau irteera ezberdinetan banatu dira

- **Egonaldia Tena haranea:** eguneko irteera, otsailaren hasieran (Aste Zuria)
- **Pirinioaurreko egonaldia (Guarako mendilerroa):** 4 eguneko irteera, Pazko-astean.
- **Pirinioak:** 7 eguneko irteera, ekain amaieran.
- **Europako Mendien /Palentziako mendiak:** 5 eguneko irteera, uztail hasieran.

\* Oharra: egonaldi hauetan autobus-zerbitzua egongo da.

### EGONALDIA TENA HARANEAN (ASTE ZURIA)

- **Norentzat da:** haur, kadete eta gazte kategorientzat.
- **Iraupena:** irteera lau egunekoa da, joanekoa eta itzultzeko barne.
- **Tokia:** Jarduera Panticosa/Formigal inguruan egingo da. Mendiaren eta eguraldiaren arabera baieztatuko da jardueraren leku zehatza.



- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 22 parte-hartzaile taldean. Gutxieneko taldea 8 kidekoa (arduradunak barne kasu bietan).
- **Egunak:** jarduera otsailaren hasieran egingo da, oporretako Aste Zuria deritzonaren barruan.
- **Kuota:** jardueraren prezioa 140 € da. .

### PIRINIOAURREKO EGONALDIA (GUARAKO MENDILERROA)

- **Norentzat da:** kadete eta gazte kategorientzat.
- **Iraupena:** irteera lau egunekoa da, joanekoa eta itzultzeko barne.
- **Tokia:** Jarduera Arroilen Parke Naturala eta Guarako mendilerroan (Huesca) egingo da.
- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 22 parte-hartzaile taldean. Gutxieneko taldea 8 kidekoa izango da (arduradunak barne).
- **Egunak:** jarduera Pazko-astean egingo da.
- **Kuota:** jardueraren prezioa 100 € da.

\*Oharra: prezioaren barruan ez dago sartuta lehen eguneko bazkaria.

### EGONALDIA PIRINIOETAN.

- **Norentzat da:** haur, kadete eta gazte kategorientzat.
- **Iraupena:** irteera 7 egunekoa da, joanekoa eta itzultzeko barne.
- **Tokia** Pirinioetan, Ordesa eta Monte Perdido Parke Nazionalan egingo da jarduera hau, Huescan
- **Parte-hartzaileak:** gehienez ere 22 parte-hartzaile taldean. Gutxieneko taldea 8 kidekoa izango da (arduradunak barne).
- **Egunak:** ekainaren amaieran egingo da jarduera. Jarduera honetarako egutegi bat egingo da, eta aurretik emango da haren berri.
- **Kuota:** ardueraren prezioa 140 € da.

### EUROPAKO MENDIEN /PALENTZIAKO MENDIAK

Ibilaldiak egingo dira mendiko aterpe batetik bestera.

Jarduera honi buruzko informazioa kurtsoan zehar banatuko da eta parte-hartzaileen mailaren arabera izango da.

\*Ohar garrantzitsua: Ez da itzuliko trebakuntzako jardueretan parte hartzeko ordaindu den dirua. Ekintza horiek zuzendaritzaren erabakiz bertan behera geratzen direnean baino ez da itzuliko dirua.